

ORDENANTZA FISKALA, LUXUZKO GASTUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA: BINGO JOKOA

5. ordenantza

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. Tituluko VII. Kapituluko 179. artikulutik 183.era bitarte xedatutakoaren babesean ezarri da, bi artikuluko horiek barne hartuta.

Zergapeko egitatea

2. artikulua.- Zergapeko egitatea subjektu pasiboak bingoaren jokoan sariak erdiestea da, eta sari horien zenbatekoa da tributuarien xedea.

Subjektu pasiboa

3. artikulua.- Bingoaren jokoan sariak eskuratzen dituztenak dira zerga honen subjektu pasiboak, betiere enpresa antolatzaileek behar den tributu-zorra jatorrian atxiki eta Ordenantza Fiskal honetan zehaztutako epeetan atxikipen guztiak Udaleko Ogasunari ordaintzeko duten betebeharra galarazi gabe.

Zerga-oinarria

4. artikulua.- Zerga-oinarria bingoaren jokoan erdietsitako sariaren zenbatekoa izanen da.

Kuota

5. artikulua.- Zerga honen kuota zerga-oinarriari Ordenantza honen Eranskinean jasotako karga-tasa aplikatzearen emaitza izanen da.

Sortzapena

6. artikulua.- Zerga sortuko da bingo-jokoan irabaziriko sariak noiz ordaintzen diren eta orduan bertan.

Zergaren kudeaketa

7. artikulua.- Jokoa antolatzen duten enpresek, tributuarien atxikitzaileak diren aldetik, behar diren aitortpen-likidazioak aurkeztu beharko dituzte hilabete bakoitzeko lehen hamar egunetan, Administrazioak emanen dien ereduaren arabera, eta zorraren zenbatekoa horretarako gaitutako bulegoetan edo Udaleko Diruzaintzan ordainduko dute.

Ezarritako epea amaituta aitortpena aurkeztu eta tributua ordaintzeak Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikusapenerako Ordenantzaren 76. artikuluan aurreikusitako berandutze-interesak eta errekarquak sortuko ditu.

Nahitaezko aitortpen-likidazio hori ez aurkeztea tributuzko arau-hauste larritzat joko da, 2/95 Foru Legearen 94.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikusapenerako Ordenantza Fiskalean ezarritakoari jarraikiz zehatuko da.

Udalak hileroko egiaztatuko ditu aurkeztu zaizkion aitortpenak. Halaber, egin beharreko likidazio osagarriak atxikipenak egin dituzten enpresei jakinarazi eta galdutako dizkie.

TARIFA-ERANSKINA

Karga-tasa	
Ezarri den tasa ondokoa da:	% 8